

### 3. MAILAKO KLASEA

*1912, Apirilak 10*

Bidaia hau merezi izatea espero dut. Nire gurasoek Ingalaterran saldu dituzte beren jabetzak, Wichitan, Kansasen, tabako-denda bat irekitzeko. Denok bizitza berri bat hastera goaz. Pixka bat urduri nago, hala ere, ezin dut inorekin uduritasun hau partekatu, izan ere, nire arrebak, Millvinak, 9 aste ditu eta nire gurasoak oso kontzentratuta daude “bizitza perfektu” hori lortzeko. Titanic du izena, luxuzkoa da, oso segurua eta hondoratu ezina dela suposatzen da. Gutxienez horrek urduritasun zati bat kentzen dit. Itsasontzian sartzerakoan, gure kamarotera abiatu gara, eskailera dexente jaitsi izan behar ditugu. Nire aitak eta nik maletak eraman ditugu nire ama Millvina besoetan eramaten ari zen bitartean. Logela oso txikia da, klaustrofobikoa, ez gara ia kabitzen. Konketa bat dugu laurondako eta komunak beste bidaiariekin partekatu behar ditugu.

*Apirilak 12*

Estalkira joan naiz paseo bat ematera eta zumo bat edaten ari nintzen bitartean hantxe ikusi dut. Zetazko trajeak, ile distiratsu eta sendoak, ibiltari dotore hori... Dirua hemendik behetik usaindu dut, zergatik daukat nik hain gutxi eta haiek hainbeste. Ez da errazagoa denok denon artean partekatzea? haiek nahi duten guztia eta gehiago daukate, eta gainera goian daude. Beno, gosaltzera noa, nire ama deika ari da eta. Gosaria eta gero, itsasontzitik paseo bat eman dut eta gela baten bukatu dut. Jende dexente zegoen, ondo pasatzen eta mahai-jokoak jolasten. Ni hantxe geratu naiz begiraten hirugarren adineko bikote bat xakean jolasten.

Arratsaldean, goiko estalkietara joatea saiatu naiz, kuriositatea ematen zitzaidan. Hango pasilloetatik nengoela, nire adineko mutiko bat ikusi dut; marinel-jantzi garbia, zapatak eguzkia bezain distiratsuak... izkina baten eserita zegoen, begirada galdua zuen eta aspertuta zirudien. Urrezko txanpon batekin ari zen jolasten, garrantzirik emango ez balio bezala. Aldi berean, nire amonak oparitutako sorte onaren kanika estutu dut poltsiko barruan. Berari hurbildu naiz eta zer egiten ari nintzan galdetu dit, nolakoa den bizitza han goian galdetu diot. Mutilak txanponari begiratu dio eta gero niri, eskua luzatu du eta “trukean?” esan dit, nire kanikari begira. Kanika honek asko balio du niretzat, zergatik ez al da txanpon hori garrantzitsua berarentzat? Eman egin diot. Ilusioa egin dit urrezko txanpon hura edukitzeak. Orain, festa batera joateko prestatzen ari gara. Festa handiak egiten direla entzun dut eta gogo asko dut joateko. Nire aitarekin joango naiz eta nire ama Millvinarekin geldituko da. Orain dela asko ez dudala ondo pasatzen. Horregatik joan nahi dut, gozatzeko eta ondo pasatzeko, aspaldiko!

### *Apirilak 13*

12:00 esnatu naiz. Atzo oso nekatuta heldu nintzen eta deskantsatzen gelditu naiz. Ez dut ezer gosaldurik, gose naiz. Festan inoiz baino biziago sentitu nintzen, asko dantzatu nuen eta garrantzisuena, lagun bat egin nuen. Hitz egiten egon ginen eta bera ere Kansasera zoazela esan zidan, nire gurasoek tabako denda izango zuten lekutik oso gertu. Poza handia sentitu nuen momentu hartan. Kontaktuan mantenduko garela adostu dugu, eta Kansasera heltzerakoak, bata besteari bilatuko diogu. Nire gurasoak logelan sartu dira, nire arreba negarrez ari da eta gurasoak berari antentzio guztia jartzer ari dira. Ez dira ezta konturatu esnaka nengoela, ezta logelan. Arropa jantzi eta janari bila joan naiz. gaileta batzuk hartu eta banku baten eseri naiz, horizontera begira. Azkenean, gauzak pixka bat ondo irtetzen ari dira niretzat. Oliverrekin gelditu naiz, atzokoa komentatu eta kartetara jolastera joan gara. Ondoren musikari batzuren ondoan dantza pila bat egin dugu eta gero edari bat hartzera joan gara. Barre asko egin dugu eta jendearekin hitz egin dugu. Oliver mutil ederra da, oso barregarria da eta beti ni pozik egotea zailatzen da.

Arratsaldean itsasontzia ikertzera joan gara eta estalkiaren eskina batean eserita gelditu gara, iluntzea ikusten. Nire bizitzako egunik onena, pentsatu gabe. Ohera noa, bihar egun berri bat izango da itsaso zabal honetan. Denak lo daude, baina nik ezin dut begirik bildu. Uraren hotsa bakarrik entzuten da.

### *Apirilak 14*

Igandea da. Gaur itsasoa ispilu baten moduan islatzen du eta geldi-geldi dago. Eguzkiak gogor jotzen du baina airea geroztik eta hotzagoa dagoela iruditzen zait. Meza entzun dugu eta gero gurasoekin egon naiz etorkizunari buruz hitz egiten. Hara iristeko gogo handia daukagu. Dena lasai dago, gehiegi agian. Nire arreba negarrez hasi da berriro, itsasontzira sartu ginenetik geldiezinago ikusten dut. Denok batera jan dugu eta paseo bat eman dugu estalkitik, lasai-lasai. Bazkaria eta gero Oliverrekin egon naiz. Jolasten ari ginen bitartean neska bat hurbildu zaigu. Begibistatik ikusten zen nondik zentorren, artilezko soineko liluragarria eta zapata apartak. Ea gurekin egon ahal den galdetu digu. Oliver mutua gelditu da, izan ere, jende mota hau gorroto du. Hara ere, gurekin egon ahal dela esan diot. Neska Charlotte deitzen da. Egunero oso aspertuta sentitzen dela esan digu, ez dituela oraindik lagunik egin eta bakarrik sentitzen dela, nahiz eta jendez inguraturik egon. Oliverrek baxuan barre egin du, suposatzen dut mundu horretan denak beti zoriontsu daudela pentsatzen duela. Gaur ere festara joateko gelditu gara, hirurok. Charlotte harrituta geratu da, ez da inoiz festa batera joan. Gaur Oliverren familiarekin batera afaldu dugu. Nire gurasoak eta berarenak aurkeztu ditugu eta Kansasera heltzerakoan egingo genuenari buruz hitz egin dute. Haren gurasoak jantzizko denda bat ireki behar dute, eta hori ez da guztia, nire gurasoek denda edukiko duten kale berdinean dago! Bakarrik egoteko nuen beldurra joan

zait, Oliver lagun ona baita. Hau entzuterakoan biok elkarri begiratu eta irribarre egin diogu. Orain atsedean pixka bat hartuko dut eta gero festara joango naiz. Charlotte pixka bat dibertitzeko gogoa dut, kanpotik oso desberdinak izan arren, barrutik oso antzekoak garela uste dut.

Festatik bueltatu naiz. Eskifaiak denok gure logelerata bueltatzeko esan digute, orain abisatuko digutela zer gertatzen den.

Atea jo digute, salbamendu-txalekoa janzteia eta ontzigainera igotzea eskatu digute, zer gertatzen ote da? Pasiloan jendea korrika ari da, nire gurasoak urduri jartzen hasi dira eta nire arreba negarrez hasi da, berriro. Hotz handia egiten du, Oliverren familiarekin elkartu gara norbait zer gertatzen den esatera itxaroten gauden bitartean. Charlotte ikusi dugu, deitu egin diogu eta korrika batean etorri da guregana, itsasontzia hondoratzen ari dela esan digu. Ematen duenez, iceberg baten kontra talka egin du eta horrek haustura bat sortu du ontziaren alde batean.

Hau agur bat da.